

## Udalerrri euskaldunetako gazteentzat topaketak

Ekainaren 28tik uztailaren 4ra Zumaiatik Lekeitiora UEMAk antolatutako udaleku ibiltarian 14- 18 urte bitarteko gazteekin lan egiteko aisialdiko begiraleak eta sukaldariak behar dira. Horretarako, interesa dutenek curriculumak [hezkuntza@uema.eus](mailto:hezkuntza@uema.eus) helbide elektronikora bidali beharko dituzte, martxoaren 31 (asteazkena) baino lehen.

Jasotako curriculumak begiraleak eta sukaldariak kontratatuko dituen enpresaren esku utziko ditu UEMAk eta, hautaketa amaitu ondoren, aukeratuei apirilaren 15erako (osteguna) jakinaraziko zaie erantzuna.

**Ibilbidea:** Zumaiatik Lekeitiora.

1. *Etapa:* Zumaia- Itziar (ekainak 28).
2. *Etapa:* Itziar- Ondarru (ekainak 28-uztailak 1).
3. *Etapa:* Ondarru-Lekeitio (uztailak 1- uztailak 4).

Honakoak baloratuko dira:

- Begirale titulua izatea.
- EGA edo bere baliokidea izatea.
- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak izatea edo burutzen egotea.
- Lan eskarmentua antzeko lanetan.
- Euskararekiko sentsibilizazioa
- Taldean lan egiteko erraztasuna.

Azpeitian, 2021eko otsailaren 9an.